

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua aisialdirako zentratuta dagoenez, edozein publikori zuzendua dago. Gure helburua, hauen ongizatea lortzea da eta ahalik eta baliabide edo modu gehien eskaintzea horretarako. Gure proposamena, taberna gunea, ikasi edota lanak egiteko gunea eta aisialdirako gunea eskaintzea da.

- **Makroingurunearen azterketa:** Gaur egun gastronomia arrakasta duen arlo bat da, are gehiago Euskal Herrian eta gastronomiaz gain, turismoa ere bai. Beraz, bertako jendeaz gain, turistak ere izango ditugu gurean eta honek kontsumitzaileen kopurua handituko du. Faktore honek diru sarrera oparoak izango ditugula ziurtatzen digu eskaria egingo diguten pertsonen kopuru zabalari eta, gastrobar bat izanda, maila oneko gure produktuen eskaintzari esker. Hala ere kaltegarriak izan daitezkeen edo kontuan hartu behar diren hainbat faktore dauzkagu gure enpresan. Alde batetik, krisia dela eta posible izan daiteke bezero potentzial gutxiago izatea jendea prezio oso merkeak dituzten tabernen bila ibiliko delako. Bestalde, produktu freskoekin lan egingo dugunez, kalitate, higiene edota beste horrelako azterketak pasatuta izan behar ditugu gure zerbitzuak legalki eskaini ahal izateko eta gure proiektua aurrera eraman ahal izateko.

- **Mikroingurunearen azterketa:** Gure enpresa gastrobar bat da, ondorioz janaria faktore garrantzitsua da. Honek arrakasta izateko hiru Michelin izar dituen sukaldari batekin egiten dugu lan, proiektu honen zuzendarietako bat izanik. Horrez gain, primerako 5 zerbitzarien zerbitzua ere eskaintzen dugu. Gastrobarrean ingurumenarekiko erantzukizun-zerbitzuak eskaintzen ditugu, adibidez, janari ekologiko eta beganoa. Toki eroso izatea nahi dugu eta Wi-Fi zerbitzua ere ematen dugu, hau da, talde edo bakarkako lanak egiteko ere oso toki egokia da. Tabernan bertan erretzaileentzako terraza bat daukagu, non ostiraletan kontzertuak egongo diren.

